

Zurrutaro

Bertsolariok, gehienok, eta nerabeak, asko, igualtsuak gara zerbaitetan. Ez geurez zurrut-zaleak garelako baina edan egin behar izaten dugu inguruak behartuta. Urteko lehen hilabete t'erdi honetan, lana pilatu zaigu gainera. Eskerrak Astigarraigako txotxaren irekiera eta Getariako txakolinarena egun berean egokitu diren! Lapuebla de Labarkan berriz, ardoa izan genuen bilgune, arrazoi eta aitzakia. Sagardoa, txakolina, ardoa... Zenbat edan behar izaten dugun geuk ia ia nahi ez dugula! Hori bai: jabetu naiz edariak oso irteera ona eta iragarbide zabalak dituela oro har. Getariako kasua ez da huskeria. Duela dozena bat urte, orain jendearen buru-mihietan txakoli-eguna dena, San Anton eguna zen. Eta San Anton itsasotari lotuagoa zegoen lehorrekoari baino; *San Antón besugo a montón* eta horrelako esapideak lekuko. Baina santuaren marketinik ez daiteke egin eta edariena bai, jakina.

Oharra: txakoli hitza zuzen idazten ahalegindu naiz Xabier Kintanak azken aldian egindako iruzkinei segituz. Halere, ulertuko duzue hainbeste edan ondoren deklinabideak eta zuzentasunak ez nauela gehiegi kezkatzen. Zutik egotea dut aski!

Noiz-nola

Hainbesteko eskarmentua norberetzat gordetzea oso zikoitza litzateke. Edan egin behar izaten dugu askotan bertso-otorduetan. Denok dakigu baraurik umore eragile izatea ez dela samurra; aldi berean, gehitxo edatea aski izaten da dena lanbrotuta ikusten hasteko edo mihia ahoan kabitzen ez dela sentitzeko. Uste dut asmatuko dudala formulatzen niretzat zein den edateko metodo-rik egokiena. Bertsoa egiten dugun bezalatsu



DANI BLANCO

edan behar da: atzekoz aurrera. Hots, afariaren hasieran ondroso edan, bertakotzen lagunduko dizu horrek eta. Gero, postrea iris-tearekin egin azken alkohol tragoak eta urarekin hasi eta segi ordutik aurrerakoa. Entzuleek, bertsotan bezala, gutxitik askora egingo dute eta guk askotik gutxira. Hartara, gure lana hobea izango da eta entzuleei hobea irudituko zaie dena baino ere. Teorian, beti ere teoriaran eta beti ere nirean, hala da.

Ertzak dira gune

Urte hasierako agendari errepasobat eman diot eta geografikoki ezustekoa hartu dudala aitortu behar dut. Izan naiz, besteak beste, Aramaio, Oñati, Ondarroa, Amurrio, Oiartzun, Getaria, Zea-nuri, Donostia, Abadiño, Hendaiian... Oskorri-ren kantaren baten letra dirudi, haurrak gure lurraldetasunaz jabetu daitezen propio egina. Arabako bi mutur. Bizkaiko kostaldea eta Anbotopea. Gipuzkoako itsasertza eta Nafarroa. Lapurdiko hondartzak... Urteen buruan, GPS ona bilakatu gara geure inguruan ibiltzeko. Badakigu nondik nora dagoen laburbideren bat. Badakigu nontsu aparkatu herririk zailenetan ere. Badakigu... Halere, autoa eta joan-etorriak dira gure ofizioaren alderik gogorrena eta makurrena. Txoferra jarriko baligute, Antónete toreroa baino urte gehiagoz ibiliko ginateke plazan.

Tonua

Aramaioko saioaren kariaz Jokin Labaienen hitz batzuk bideratu zidaten gogoeta. "Saio ona izan duk. Harritu egin naiz nola asmatu duzuen gai gehienei tonua hartzen". Hor dago koxka. Tonua hartzean. Ez naiz musikatonuaz ari noski. Gaiari atmosfera egokia aurkitzean datza bertsoaldiaren arrakasta, bertso solte bat bikaina botatzeaz haratago. Gurea inprobisazioa denez, batzuetan asmatuko dugu eta askotan ez. Gainera, biren arteko lana da gurea gehienetan eta biek arnastu behar dute atmosfera bera. Halere, gogoetarako baliagarri zaizkigu Andu Lertxundiren



Hor dago koxka. Tonua hartzean.

Ez naiz musika-tonuaz ari noski.

Gaiari atmosfera egokia aurkitzean

datza bertsoaldiaren arrakasta, bertso

solte bat bikaina botatzeaz haratago.

Gurea inprobisazioa denez, batzuetan

asmatuko dugu eta askotan ez



irudiak:

Antton Olariaga

adierazpen haiek, non esaten zuen eleberri bat hastean, kolore jakin bati lotzen zitzaiola idazkera jakin bat lortzeko.

Galdezka

Ez al zara aspertzen behin eta berriz goizeko ordu haue-
tan etxetik irten eta
lantegira joaten?

Hainbeste urteren

buruan, dena

beti berdina den

ustek ez al zaitu

gogaitzen? Non-

dik ateratzen

duzu indarra

segi eta segi egi-

teko? Sekula

burutik ez al

zaizu pasatu dena

uztea? Ez al zaude

nekatuta? Erruti-

naren morroi ez al

zara sentitzen? Buzodun

langileak bere buruari behin eta berriz egingo

dizkion galderak dira. Beste inork ez dizkio

egingo ordea, berea, ezinbestean, bide hura

dela sinetsita. Nik, oraingoz, nire buruari egi-


ten ez dizkiodan galderak dira. Orduan zerga-

tik besteek hainbestetan egiten dizkidate? Ez

dakit...

Hamaika bertute

Urtearen hasierarekin eman dute ezagutzera beren burua Hamaika bertute taldeko bertso-
lariek. Euskal Herria txikia da, lehengoa. Eta
gero eta bertsolari gehiago da zorionez, maila
onean bertsoan egin dezakeena. Ohiko pla-
zen eta ohiko eskaera-eskaintza dinamikaren
aldaketa sortzea dute helburu. Hitz lauagoe-
tan esanda, bertsoan egin nahi dute eta prest



“Zer iruditze zaik hiri?” galdetu zidan taldekide batek

Hamaika bertute taldeaz: ‘Ondo. Auto-antolakuntza

hartu genuen bertsolaritzaren geroa ziurtatu eta

indartzeko bide, duela hogeit urte.

Orain gaizki nola irudituko zait ba!’

daude orain artekoak ez bezalako baldintza-
tan bertsoan egiteko, baldintza horiek euren
lana kaltetzen ez badute behintzat. “Zer iru-
ditze zaik hiri?” galdetu zidan taldekide batek.
Ondo. Auto-antolakuntza hartu genuen bertsolaritzaren geroa ziurtatu eta indartzeko
bide, duela hogeit urte. Orain gaizki nola iru-
dituko zait ba!

Bertso Eguna



Izango da oraindik “lehen-
goa-beti-hobeka” aritzen
denik. Izan ere, ederra zen
lehengoa. Igandean goiz
irten etxetik, hamaiketa-
koa egin galanta, Victo-
ria Eugeniara joan,

omenduari lo egin-
dako bertso

banu eskaini,

irten, bazkaltze-
ra joan eta eseri-

ta bezain luze baz-

kaltu ilun-txintan

erretiratzeko orduan heldu

arte. Garai baten eta izateko

modu baten isla. Duela dozena

bat urte, data salbu, gainerako

guztia aldatu genuen. Larunbat arratsalde

burutuko genuen ikuskizuna. Ez zen omen-

durik izango. Bertso-mugimenduak bere

buruari eskaintzen zion eguna izango zen.

Saioa esperimentaziorako baliatuko genuen.

Afaria izango zen zutitu eta batekin eta bes-

tearekin egoteko aukera emango ligukeen

lekuan ahal zelarik. Eta larunbata, jai izateaz

gain, igande bihurtuko zen gehienontzat

egunsentiak harrapatuta. Ez zaigu gaizki

irten. Geu hamabost urte zahartu gara

baina ekitaldira joaten direnen batz besteko-

koen adina hamabost urte gaztetu da.

Magia! ■

Bertso Eguna dela eta, izango da oraindik

‘lehengoa-beti-hobeka’ aritzen denik (...) Ez zaigu gaizki

irten. Geu hamabost urte zahartu gara baina ekitaldira

joaten direnen batz bestekoen adina hamabost urte

gaztetu da. Magia!